

# iritzia

## gaurko...

### ...elkarrizketa



#### Sonsoles Cortazar

• EAEKO DOWN SINDROMEAREN FUNDAZIOKO GERENTEA •

«Down sindromea dutenen % 80 lan munduan integra daitezke»

Lan munduan down sindromedunen integrazioa bultzatzeko kanpaina hasi dute.

#### ■ Down sidromedunak lanerako gai direla erakutsi nahi duzue?

Hala da, bai. Gizartea horretaz kontzientziatu nahi dugu. Adibideak erabiliz, pertsona horiei lan munduan sartzeko eta gizartean integratzeko aukerak eskaini nahi dizkiegu.

#### ■ Gizarteak oraindik ere zailtasun ugari eskaintzen dizkie?

Zailtasunak baino gehiago, gizarteak ez daki pertsona horiek zertarako gai diren. Orduan, pertsona horiek ez dira gaixoak, ezta biktimak ere. Behar dutena laguntza da, ez besterik.

#### ■ Hala ere, azken urteotan egoera hobetzen ari da, ezta?

Bai. Down sindromedun pertsonen egoera hobetzen ari da, medikuntza eta hezkuntza aldetik aurrera egin dugu eta. Bestalde, gizartea ere pixkanaka ari da haien egoera ulertzen.

#### ■ Zer esango zenieke enpresariei?

Bada, down sindromea dutenak lan munduan sartzeko moduan daudela, gehiengo behintzat. %80k atzerapen txikia dauka, eta entrenamendu egoki batekin lan munduan integra daitezke.

Iban Arregi  
DONOSTIA

### ...esaera

«Urrunduz bistatik, urruntzen gogotik»

### ...hizpideak

#### ‘Brouard kasuaren’ ibilbide korapilatsua

■ Bizkaiko Entzutegiak berriz ere atzera bota ditu *Brouard kasuko* epaile instruktoreak, Jose Luis Gonzalez Armengol, hartutako hainbat erabaki. Kasu honetan, gainera, inputatuen auzipetze autoa ere baliogabetu du, zenbait zantzu argitzeko egin beharreko dilijentziak ez dituelako egin (horien artean Brouarden erizanari deklarazioa hartzea ea Morcillo eza gutzen duen edo ez argitzeko). Halaber, Entzutegiak agindu dio Gonzalez Armengol epaileari kasutik kanpo geldi dadila

berari buruzko errekusazioa aztertzen eta erabakitzen den bitartean. Entzutegiko lehen sekzioak berriz ere agerian utzi du Gonzalez Armengol epailearen instrukzioari buruzko jarrera kritikoa. Entzutegi barruko gorabehera hauekin guztiekin kasuaren argitzea atzeratzen ari da. Atzerapen horrek azkenean instrukzioaren okerrak zuzentzeko balio izango badu, onerako izango da, baina auzi hau gehiago korapilatu eta argibiderik gabe uzteko arriskua ere badago.

#### Quebec eta gehiengoak

■ Quebecen independentzia aldarrikatzeko zenbateko gehiengo behar du? Independentisten iduriko nahikoa litzateke erdiek baino bat gehiagok alde bozkatzea, eta hala xe jaso du Gobernu Autonomoak lege batean. Ottawaren arabera, «gehiengo kualifikatua» behar da, eta halaxe idatzi du Gobernu zentralak beste lege batean. Konstituzionalaren iazko epai salomonikoa dago tartean: gehiengo sinplea nahiko dute independentistek Ottawa negoziatzera behartzeko.

#### Etxeko lanen nekea

■ Etxeko lanek neke fisikoa eragiten dutela baieztatu du Emakundek, ikerketa batean oinarrituz. Ikerketa handirik ere ez zen behar nabarmenkeria hori baieztatzeko, baina joan den urtarrean EAEko Auzitegi Nagusiak kontrakoa esan zuenez, neurri horretako erantzuna merezi zuen Auzitegiak. Akaso, epai hura idatzi zuen epaileak etxeko lan handirik ez duela inoiz egin izan daiteke arazoa.

#### Balio absolutuen erlatibismoa

■ «Gure tragedia da, bizi dugun kulturaren, zurrutotsik ez egitea guretzat absolutua dela, eta ez hiltzea edo ez torturatzea ez dela absolutua. Horrek ez zuen kritika bat izan nahi, gertakari bat espresatu nahi du: errealitatea horixe da. Beraz, zer egin?». Horrela idatzi du Joxe Azurmendi pentsalariak kaleratu berri duen *Euskal Herria krisian* liburuan. Berrir ere gure errealitatea du hizpide, gure errealitateaz egiten du gogoeta eta

eztabaida, eta arazoaren bihotzean jotzen du: «Balio absolutuen apostoluen» eta «tolerantziaren maisu intoleranteen» *absolutismoaren* aurrean erlatibismoa baino ez zailgula geratzen deritzo; moralaren izenean existentzia politikoak ezkutatzen direla; bizi dugun krisia mendealdearen krisia dela; krisiak bide berriak argitu eta urrats berriak egiteko balio behar duela...

Azurmendiren beste lezio bat kalean da.

### ...pertsonaiak



#### JUAN LUIS ZABALA •

EGUNKARIAKO lankide eta idazleak jaso du Felipe Arrese Beitia olerki saria, *Hautsia natza* poema bildumarekin. Liburua «horretara eseri gabe» osatu duela esan digu idazle azkoitiarrak.



#### BEÑAT AMESTOI 'ETXEBELTZ'

• Marrazkilariaren bilduma argitaratu du Gatzuain argitaletxeak. *Enbata* aldizkarian publikatutako 300 marrazki argitaratu ditu liburuan.



#### HUGO CHAVEZ •

Venezuelako lehendakariaren Konstituzioaren alde bozkatu dute %71,21-ek. Alabaina, abstenzioa %54ra iritsi da. Estatu horretan gertatu uholdeek ilundu dute Chavezen Konstituzioaren garaipena.

### ...datua

**115** soldadu errusiar hil dituzte gerrillari txetxeniarrek, Grozni erdialdean sartzen saiatu zirenean.

### ...adierazpena

«Ikasleak euskaraz ikasteko eskubidea du, eta unibertsitateak hori eskaintzeko betebeharra»

#### Jose Luis Cuesta

EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea

### ... seiko urrea

EMILIO LOPEZ ADAN

#### Quid, quomodo, quando?

A inhoan haur bat hil da etxean egin erditze batean. Emagina nahigabeko hilketaz inkulpatua dago. Gertakari horrek iritzia zatitu du. Gehienek pentsatuko dute haurra biziko zela maternitate batetan sortua izan balitz, baina, gutxi badira ere, badira medikuen boterea eta gertakari naturalen medikalizazioa errefusatzeko dituztenak. Horientzat, heriotza hobendunik gabeko fatalitatea da, eta emaginaren inkulpatzioa sistemaren mendeku hutsa. Non dago egia?

Haur ukaitea une arriskutsua da, eta, okertzen denean, interesen eta eskubideen korapiloa. Etxean erditzea legala da, eta medikalizazioari muzin egitea norberaren aukera;

bestalde, haurraldiaren bururaino heldu den fetuak badi eskubidea ahal eta hobekien sortzeko. Klinikek eskaintzen dute segurtasun tekniko handiena, eta, hain zuzen, segurtasun horren prezioa da medikalizazioa. Etxerako aukeratu erditze gehienak ongi gertatzen dira, baina badituzte ustegabekoak: ugariagoak izanzen ziren etxean edozer egitea onartuko balitz.

Osasuna eta bizitza auzian



direnean, sentimenduetatik datozen iritzi arinak erraz plazaratzen dira. Gogorra dezagun Israel txikiaren kasua: mutikoak hiesaren birusa zeukan, eta Du-

rangoko eskola batetik bota zuten beste umeentzat arriskutsua izan zitekeelako. Han, mediku adituek hartu zuten Israelen defentsa eta uste publikoaren kontra ibili ziren; jende gehienek, arrazoirik gabe baina beren haurrengatik kezkatuta, hiesdunak eskola-

tik kanporatzea eskatzen zuten. Medikalizazioa ez dago beti diskriminatuen aurka.

Kasu partikularren zirkunstantziak ikertzea da zuzenena, hexometro latinoan esan bezala: nork, zer, non, nola, zergatik, zeren eta noiz. Intentzio hoberenak ez dira aski, gertakari naturalen errespetua edo haur propioen osagarria izanik ere. Ainhoan amaren eta haurraren interesak begiratu behar zituen emaginak; Durangon, ume gaixoaren eta ume sanoen interesak gobernatu behar zituen eskolako zuzendariak. Bietan, informazio eta bide egokiak erabili behar zituzten. Ongi erabili dituzte?: horretan datza erantzukizunaren funtsa, eta ez printzipioen oitotzean.